

PRENTSA OHARRA
PRENTSA-OHARRA**EUSKO JAURLARITZAK ETA DONOSTIAKO UDALAK
DONOSTIAKO HIRIBURUAN GAZ BULEGOA IREKITZEKO
HITZARMENA SINATU DUTE**

- **Irekiera berri horrekin, EAEko hiru hiriburuek GAZ bulegoa izango dute, Barakaldoko udalerriaz gain, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea indartzeko.**

Vitoria-Gasteiz, 2026-03-03

Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute Donostiako hiriburuan GAZ (Gazte Ibilbideak Abiarazteko Zerbitzua) bulego bat irekitzea bultzatzeko. Bulego hori erreferentziazko zerbitzu publikoa da gazteei emantzipazio-prozesuetan laguntzeko.

Bulego berria Kontadores Gazte Zentroan (Pasai San Pedro pasealekua, 13) kokatuko da, eta aurrez aurreko arreta, pertsonalizatua, doakoa eta sarbide unibertsalekoa eskainiko du, GAZen online zerbitzua osatuz eta Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea indartuz.

Hitzarmenak aukera emango du Donostian proiektu integral pilotu bat garatzeko, gazteriaren arlotik gazteen emantzipazioa erraztera bideratua eta gazteen parte-hartze aktiboarekin, trantsizio sozial eta demografikoko testuinguru batean.

Iñigo García Gazteriako zinegotziak proiektuaren garrantzi estrategikoa azpimarratu du: «Kontadoresen martxan jartzen dugun zerbitzu honek aukera emango du gazteek emantzipatu nahi dutenean aurkitzen dituzten benetako oztopoak askoz ere zehatzago detektatzeko. Kontadores gune bihurtu nahi dugu, zalantzak konponbide bihur daitezzen eta gazte bakoitzak lagun egite argia, hurbila eta erabilgarria izan dezan bere autonomiarako urrats zehatzak emateko».

Donostian bizi diren, ikasten ari diren, lan egiten duten edo bizi-proiektua garatu nahi duten 16 eta 34 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago zerbitzua. GAZ bulegoak informazioa, orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza emango ditu funtsezko eremuetan, hala nola enpleguan, prestakuntzan, etxebizitzan, mugikortasunean, ekintzailertzan eta gizarte-baliabideetan, etengabeko arreta emanez eta askotariko errealitateetara egokituta.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Emantzipazioko zuzendari Adrián López Sarachagak GAZ Sareari balioa eman dio, «gazteei emantzipatzen laguntzeko erreferentziazko tresna publiko gisa, arreta hurbila, doakoa eta errealitate bakoitzera egokitua emanez». «Donostian irekitzeak hiru hiriburuetan eta Barakaldon dagoen sarea indartzen du, eta bulego fisikoak eta online arreta konbinatzen dituen eredu bat finkatzen du, gazte gehiagorengana iristeko», gaineratu du.





Gaur egun, GAZ guztietara bideratutako inbertsioa – Donostiako bulego berria barne – 697.000 €-koa da bulego fisikoetan, eta beste 300.000 €-koa online zerbitzuan.

Jarduera horiek Gazteriaren Estrategiaren barruan kokatzen dira, eta 2026-2030 aldirako baliabideen zenbatespen globala 2.350 milioi eurokoa da. Estrategiak bere izaeragatik aurrekontua zentralizatzen ez badu ere, Eusko Jaurlaritzak Estrategiarekin lerrokatutako jarduketetan mobilizatzea aurreikusten dituen baliabideen estimazio bat jasotzen da: 550 M € Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarenak eta 1.800 M € gainerako sail eta erakundeena.

Donostia, gazte-politiken berrikuntzarako "laborategia"

Donostian ezartzea emantzipazio-politika publiko berriak diseinatu, ebaluatu eta sistematizatzeko espazio bat ere bada, Euskadiko beste udalerrri batzuetara transferitzeko moduko ikaskuntzak lortzeko.

«Emantzipazioa gure gazteen erronka handietako bat da. Zerbitzu hori beren bizitzako une garrantzitsu batean laguntzeko sortu zen, Donostian beren bizi-proiektua eraikitzeko benetako tresnak eskainiz. Gazteak hemen geratu, hazi eta garatu ahal izatea nahi dugu, eta proiektu hau urrats erabakigarria da norabide horretan», adierazi du Iñigo García.

Aurrez aurreko zerbitzuaz gain, proiektuak programa osagarriak jasoko ditu, hala nola Martx-Up (gazteen ideiak eta proiektuak bultzatzea), bai eta parte hartzeko laborategiak eta espazioak ere, sormena, enplegarritasuna, bizitza independentea, osasuna eta konpromiso komunitarioa sustatzeko.

Programa garatzeko aurreikusitako aurrekontua 315.023,65 €-koa da, eta % 51,48 Donostiako Udalak finantzatu du, eta % 48,52 Eusko Jaurlaritzak. 2026an eta 2027ko lehen seihilekoan gauzatu da.

Sinadura horrekin, GAZ bulego-sareak presentzia fisikoa du EAEko hiru hiriburuetan eta Barakaldon, eta aurrera egiten du lurralde osoko gazteen emantzipaziora informazioa, orientazioa eta laguntza pertsonalizatua hurbiltzeko helburuan.

